

# Nixon eta Mao ping-pong jokolariak

## Norentzat lenengo tantoa?

Bi urte artuemanetan ibilli dira txinoak eta amerikarrak, frantsesak eta rumanoak bitartekotzat arturik. Eta azkenean ez da danbakeko makala bota dutena.

"Txinako Errepublikak Popularrak dei egin die Nixon lelakariari Txina ikustera etorri dedin lalster batean, 1972'garrenge maizta baino leenago, eta Leendakariak pozik jaso du dei au".

Baiñan zer arraio gertatzen da joku auen atzetik?

—oO—

Azkenengo ogeitabost urtetan, aalegin guziz jardun da Iparramerika komunismoa zabal ez zedin bazter guzietara, dominoko fitxen teoriari jarraituz. "Bat erortzen ba-da, guziak eroriko dira". Orregaitik bein ere ez die barkatu komunista gudarien edo gerrilla gorrien erasoeri. Politika joku orren ezagarrri dira: Formosa, Korea, Vietnam...

Baiñan joku orretan erortzea izan da Mao'ren estratejiaren garraipenik aundiena. Onela eman aal izan dio-ta komunista mobimenduari, amerikar inperialkeriaren

artu. Formosa-rentzat "estatu autonomo" bat nai luke.

—oO—

Txina, bere aldetik, amerikarren inperialkeria nola zapuztuko dabil, berari deritza-ta etsaioirik aundiena, Asian daraman komunista politikaren kontradizioirik nagusiena. Eta noski orrekin aios daude rusotarrak. Orregaitik biek eskatzen dituzte:

—Orain bertan etxeratu ditezela amerikar soldaduak Vietnam'dik eta Korea'tik.

—Txina bakarra ezagutu dezatela.


—ONU'n sartzea.

—Formosa biur dezaitela.

—"Japondar militarkeiaren pizkundera" (ala deitzen diote) gale-ratzeko neurriak jartzea.

Eta txinarrak, dialektika zale onak izaki, "artuemanak" ez dituzte alde batera uzten egoera jakin batuetan, Orregaitik uztailla ontako 14'ko Pekin Review'en au dioite:

"GURE POLITIKA AU DA: NEURRI BAKOITZARI BERE NEURRI ERANTZUN. NEURRI-



Kissinger eta Chu En-lai Pekin'en

kontrako aberri askatasunaren ikurra ta ezagarrria. Eta au burrukan pauso bat dala jakinaz komunismoa ezartzeko. Orregaitik laguntzen ditte ain zuzen "inperialkeriaren aurkako aberri talde edo fronte elkartuak".

Eta inperialkeri onen aurka eramian duan burruka luzearen ondoren bezala, amerikarren moralala lur-jota utzi du eta danok daki-gun zirrara bildurgarria sortarazi Amerika'n bertan.

Nixon jokabide ori txarra izan dala, bereala konturatu da. Eta irteerarik ez duan leize zuloari atea billatuz nai du, datozten auteskundeetan bere burua "pake gizona" bailitiz bezala agertzeko.

—Amerikar soldaduek Asia utziko dute, baiñan asiatarrak euren "arriku gorritik" gordetzeko gaitu ditezzen nai du aurretik. Ortik "gerlaran Vietnandartzea". Ortik jaiio zaio beste asmo au ere. Japonek indar aundi-aundi izan dezala Asiako garbeeratzen eta estuago lotu dedilla Ego-Korea-kin.

—Txinakin nola-alako elkar-bizitza batera iritzi nai du. Txina ezagutu eta Seguridadeko Batzarraren sar dedin onartu batzarkide nagusi bezala eta Formosa ONU'ko batzarkide arrunta bailitiz bezala

ARI BERE NEURRIZ NOLA ERANTZUN' EGOERAK ERAKUSTEN DU. AIEK BURRUKA NAI BA DUTE BEIN BETIRAKO ERATXIKO DITUGU ETA AU NEURRIARI NEURRIZ ERANTZUTEA DA. ARTUEMANAK NAI BA DITUZTE, BATZUETAN ARTUEMANETARA JOANAZ ERANTZUTEN ZAIO NEURRI BATI BERE NEURRIZ eta beste batzuetan artuemanetara ez joatea da neurriari bere neurriz erantzutea".

Ping-pongeko politiku joku onetan, bi joka-lege ezberdin nabarmentzen dira. Txinotarrak, "dialektika" erabiltzen dute; beren esan-ze eraginkorra da eta aurra artu aal izatea ematen die. Amerikarrek ordea leenagoko bide zarrari jarraitzen diote. "Aginpideen ekilibrioari". Eta politikologo batzuen esanaz atzera gelditzen dana da au.

Bi joka-lege auek aztertzeak oso luze joko liguke. Baiñan gaurkoz, ping-pong'eko joku onetan, leen tantoa Txinak jaso dula uste du-gu. Aldako ote dute iparramerikarrek bere joka-legea? Gertatzen danari so egon bear, erantzuna argitzeko.

J. A.

# PRAGA-TIK SANTIAGO-RA

la bederlatzi hilabete pasa da Salvador Allenderen gobernu Chilen nagustu zenez geroztik. Sozialismorako bidean ausarki abiatua, gero eta laguntza beroago du herriaren aldetik (% 36 igazko irailan, aginterakoan beraz; eta % 50 udaletxe-hauteskunderetan aurtegu Apirilean). Eskuindarrak, beren burua gero eta galdugabe antzemanku, politika hilkintzara pasatzen ari dira (René Schenider lehendabizi; Perez Zujovic gero, Frei-ren ministro izana); eta "fund-ak defenditzaoko sortu berria da "Trinchera-terrorista" taldea. Horrela berek sortzen duten "desordenu" horretan aitezkan, militar-kolpe bat "zuritu" nahi lukete amerikatarren bedekiazioarekin...

Gauzak ez dira horretaraino heldu, gaur gaurkoz. Salvador Allenderen gobernu, kontrari gogorren artetik, aurrera doa, eta segidan xehekiago ikusiko dugun moduan; eta aurrera doa komunista moskuzaleen laguntzarekin; eta batera... prentsa-askatasunak eta politika-askatasunak osorik diratutela! Santiagoko gobernuaren politikabidea, beraz, ezin inportanteago da guretzat eta mundu guziazentzat.

Salvador Allende sozialista da, eta Chileko Sozialista Alderdi buruzagia (% 23 boto bildurik joan den Apirilean). Igazko hauteskunderetan, elkarrekin moldatutako Programa baten inguruan sortu zuen "Unión Popular" delakoa, eta garraile aterara ere bai.

Nork osatzen du "Unión Popular" deritza horren gobernu? Allenderen sozialistek batetik, jakina (bost ministro, Allende barne); komunista moskuzalek (hiru ministro); eta postu gutxiagorekin radikalek, API koek, eta MAPU deritza ezkertar kristau demokratik.

Ezkertar Elkarte honek ez du lana gerorako utzili!

Lehen-lehenengo eginkizuna, noski, lurrak nekazarietara ematea izan da. Frei baino lau aldiz azkarrago" ibiliz, Chonchol ministroak hiru urtetan bukatu nahi du bere eginkizuna: alegia, 80 Hektareatik gorako ondasunak naziotartzea. Chonchol ezkertar kristaua da (MAPU koa); eta 80 Ha. muga hori gogeri jarria izan dela pentsatuz, haratago joan nahi luke ahalik eta azkarrenik lurraldeen banakuntzan (80 Ha = 800 metro x 1.000 metro). Coutin-gu probintziatik hasi da. Ez Santiagotik gauza mugituz, ez: berriazko da Mapucho indioen artean, eta hilabete batzutan 300 ondasun nagusi zatitu ditu eta indioi bihurtu. Jabekunde berri hau horiek nola hartu duten sumatzea ez da zaila: Mapucho indioek 40 Ha. zuten 50 familiarentzako; hau da, 0,8 Ha. familiako!!

Komandotara pasa diren latfundistek 100 aldiz gehiago izango dute orain indio gizajo horiek bealunez belauin izan dutena baino. Kolonialismoaren lorrik dira horiek, jakina. Eta Chileko lur guzira, jakina denez, hiru mila familiak atxiki dute.

Bigarren arazo nagusia: tipikarena, kobrearena erderaz. Chilener dibisa iturri nagusia (% 80) tipikaria da. Hots, tipiki hori USA ren eskuetan zegoen (Anaconda konpainia, eta beste). Allenderen gobernuak naziotartu egin du tipiki guzira, urtero 70 milioi dolar dibisa irabaziz Chilerentzat (5.000 milioi peseta, gutxi gora behera). Etekin horietaz ongi aberastzen ziren teknikoek Chiletik ihes egin dute, denaz gain Allenderi teknika arazo bat utzi.

Hirugarren arazo nagusia: ikatzeta eta galtzairua. Oinarriko industriak izanik, naziotartuak izan dira biak.

Laugarren arazo eta zaila oso: bankuena. Erresumaren diru erabilkera zuzen ahal izateko, bankuak eta bahitura bideak kontrolatu bear. Ahaleginak berretuz, Allende erabaki hau hartu du: bankuek titulok gobernuak piskanaka eros-tea, eta erosketa horretan ari da.

Bosgarren arazo zail bat: atze-

rrialdeko harremanak. Frei baino aurrerago joanaz, Cuba eta Maoren Txina hartu ditu haintzat. Ameriketako kontutan hau zer den ulertzeko, USA ren pisu ikaragarria hartu behar da kontutan: urte asko eta askotan ez bait da ezertxo egin Amerika osoan USAREN bedekiazioirik gabe.

Baina ez dira horretara biltzen Allenderen merezimendu gaitzak. Pragako gertaera hitzak kontutan harturik ere, eta Chileko Komunista Alderdia oso moskuzale eta oso indartsu izanagatik ere, gogorren berru bat komunisten egitea erabaki du hauen hitzez fidaturik. Volida eitelboim komunista buruzagiak berriki deklaratu duenez: Transizio-gobernu baten menpean gaudu. Kapitalismoaren barutik beretik ari gara siazten sozialismoruntan... Gure iraultza, gure tradizioen arbera eigitzen ari gara: Parlamentoarekin, pertsonaren eskubideak, prentsa askatasuna eta demokraziaren segurtasunak barruan. Eta bide horretatik jarraituko dugu".

Komunistek, beraz, Chileko herriaren konfiantza irabazi nahi dute; eta pluralismoa onartu dute sozialismogintzan, bidenebar Pragako jokabidea kondenatuz.

Eta Georges Marchais, Frantziako P.C. aren Sekretarioak, ez du aukera galdu; eta Parti Socialiste berrian Mitterrand-ek izan duen arrakasta ikusita, agintza berriak egin ditu, eta bereziki aipatu Allenderen gobernu, Frantziako komunisten joko garbia sinestartzeko.

Salvador Allenderen saiaketa, horretara, Chiletik at zabaldu da aisa; eta sozialismoaren etorkizuna bera baldin dezake ondoko urtetan, kuarteleko sasi sozialismoari akabera emanaz.

Eskuindarrek ba dakite. Eta CIA ren laguntza eskatu dute Santiagotik. CIA ren kondairako eskandaloen ilara larriari, beste bat erantsi beharko zaila dirudi. Allenderen gobernuak frogak omen ditu V.O.P. terrorista-talde berria, ituzar "ultra ezkertarra", CIAk atzerriar bidez montatutako probokazio talde bat besterik ez dela erakusteko. Ez bait da hau lelo berria!

Allende oso kezkatuta dago; eta Ekainaren 16 an jendaketa haundi baten aurrean Santiagon mintzatu delarik, ez du izutatu nahi izan.

Ezen "desordenu" horien bidez errezioak helburu ezagun bakar bat nahi bait du lortu: Allenderen esperientzia bikainak erreka jo araztea.



CHILE

Larresoro

0 km: 500

## BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK ETA EDARI GUZTITATIK

Blas de Lezo Kalea, 6  
Urrutizkiña: 41 20 65

DONOSTIA

# GUKELESA



Gipuzkoa'ko ta Naparroa'ko esne onenakin gertatutako esnekiak:

- Esne Pasturizatua
- Esne soila (esterilizatua)
- Esne autsa
- Esne-gaiña
- Gurina
- Yogur
- Donostia

Ignan auzoa - Apart. 212 - Urrut. 20600 (lau art) — DONOSTIA

## JOSE ZINKUNEGI' BEN

### OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN GIETAN GIETUA

BARRUAN DANAK EUSKALBUNAK

HERNANI, 4

DONOSTIA